

1. GAIA: ARGAZKI KAMERA

1. GIZA-BEGIAREN IKUSMENA

Sarreratxo bat besterik ez du egin, gure begiaren eta kameraren funtzionamendua oso antzekoa dela azaltzeko

(irudia)

2. KAMERA DIGITALA

(irudia)

Kamera digitalek ez dute emulsiozko pelikularik erabiltzen, horien ordez argia joasotzeko sentsoak dituzte

3. PROZESUA

I. PARTEA

- CCD IRUDI - SENTSOREA
 - Kamera gehienek erabiltzen duten sentsoa CCD (
 - CCD-ak objektiboa zeharkatzen duten argi-izpien energia seinale elektriko bihurtzen du. Bulkada (impultso) elektriko horiek ADC deritzon bihurgailu batek jasotzen ditu eta bertan digitalizatu egiten dira.

(eskema bat)

CCDan argia seinale elektriko bihurtzen da

II. PARTEA

Informazio digitala → Bufferra barne-memoria → Mikorprozesadorea → LCD pantaila kristal likidozko pantailara doa eta baita SD txartelera

PROZESU OSOA

Informazio digitala → Bufferra barne-memoria → Mikorprozesadorea → LCD pantaila kristal likidozko pantailara doa eta baita SD txartelera

Objektiboa → Argia CCD → ADC bihurgailua

Ondo bereizitu behar dira barne-memoria (bufferra eta memoria-txartela

Bufferrak datuak gordetzen ditu mikroprozesadoreak tratatzen dituen bitartean

Memoria-txartela, aldiz, datuak irudi bihurtzen direnean bertan metatzeko erabiltzen da, beraz, biltegiaren funtzioa betetzen du

4. CCD-AREN EGITURA

Esan dugu CCD-a argia jasotzeko sentsorea dela. Sare baten egitura dauka, milaka eta milaka gelaxka edo laukitxo mikroskopikoz osatua naitago

5. PIXEL (picture element)


- Gelaxka bakoitzak, zelula (fotosientikorren) bitartez fotodiodoak pixel bat sortzen du
- Pixela irudiaren elementu txikiena da eta bertan elementu hauek gordetzen ditu:
 - argiaren kolorea
 - intentsitatea (tonua)
 - kokapena
- irudiaren bereizmena pixel kopuruaren arabera izango da (pixel gehiago, irudi hobea lortuko dugu)
- Pixela irudia definitzeko puntua denez gero, zenbat eta pixel gehiago eduki, hainbat eta bereizmen handiagoa izango du irudiak.
- Sentsorearen gelaxka bakoitzak pixel bat sortuko du. Horrek esan nahi du 8 MP dituen kameraren CCD-ak 8 milioi gelaxka dituela.

6. BEREIZMENA ETA ARAZTASUNA

- CCD-aren egituraren ezaugarri nagusiak:
 - gelaxka kopurua
 - informazioa jasotzeko gelaxka bakoitzaren ahalmena (gelaxkaren sakontasuna)
- Bi aldagai horiei esker, eta optikaren kalitatea ahaztu gabe, lortuko ditugu goi mailako irudiak.

BEREIZMENA

- CCD-aren bereizmena gelaxka kopuruari lotuta dago. Hau da, zenbat eta gehiago izan, orduan eta pixel gehiago sortuko ditu, eta, ondorioz, hobe izango da bere bereizmena. Irudiak zenbat eta pixel gehiago izan, orduan eta definituago egongo da.
- Irudi baten tamaina handitzen badugu, interpolaziorik egin gabe, neurri berean, pixelen tamaina ere handitzen dugu eta, ondorioz, bere bereizmena jaitsiko da.
- Bereizmen gutxi eta kalitate eskasa



- Kamera gehienek 72 ppi-ko (pixel por pulgada) bereizmenarekin egiten dute lan.
- Bereizmena ppi-tan (*pixels per inch*) neurtuko dugu, hau da, haztabeteko (pulgadadako) agertzen diren pixeletan.
- Adibidez, ordenagailuaren pntailak 72 ppi dituela esaten badugu, horrek esan nahi du hazbete bakoitzean 72 pixel daudela (72 pixel pulgada bakoitzeko)

ARAZTASUNA

- Irudiaren araztasuna, berriz, **gelaxkaren sakontadunari** lotuta dago, hau da, bit kopuruaren araberakoa da (informazio kantitatea)
- Zenbat eta digitu binario gehiago, pixel bakoitzaren kolorea eta tonuaren ezaugarriari buruzko informazioa hobe izango dugu, eta horrela araztasuna areagotzea lortuko dugu.

Zerren arabera esango degu irudi bat kalitate handikoa dela?

- Pixel kopuruagatik:
- Bit kopuruagatik: informazioa gordetzeko

7. FOKATZE PROZESUA

- Fotokazetaritzan erabiltzen diren kamerak Reflex motakoak dira. SLR izena ere hartzen dute (*Singles Lens Reflex*) Kamera hauek bisore berezia dute, eta horri esker, posible da objektiboak eratzten duen irudi bera ikustea.
- Argia objektibotik sartzen da, ispilu batean islatu eta gero **pentaprisma** pasatzen da. Pentaprisman bi aldiz islatu ondoren bisorera pasatzen da eta handik begiak ikusi dezake.
- Objektiboak argazkia hartzeko prozesuan **irudia alderantzikatu** egiten du, baina pentaprisma esker, berriz alderantzikatuz, jatorrizko itxurara bueltatzen da.
- Fokatze sistemak reflex kameretan:
 - Eskuzkoa MF
 - Autofokusa
 - **S-AF (sinplea)**: Kamerak behin fokatzen du kliskagailua erdiraino zapalduz (geldirik dauden objektuentzako).
 - **C-AF (jarraitua)**: Kliskagailua zapalduz mantentzen dudan bitartean, modu jarraituan ari da fokatzen (mugitzen ari diren objektuentzako da)

- Gaur egungo kamera gehienek autofokatze sistemarekin automatikoki fokatzeko gaitasuna dute motiboa erdialdean ez egon arren. Hasiera batean erdialdeari lehentasuna ematen zioten.

Horrela, erdialdean zegoena ongi ikusten zen eta **FALTA**

Kamera horiekin ezin genuen goiko argazkia autofokatzen automatikoarekin atera

- Gaur egungo reflex kamera gehienek fokatzeko sistema zehatzagoa dute: kolimadoreak deritzon puntu batzuk dituzte.
- Hauek, irudiaren azalera barreiatuta daude eta, eskuz edo automatikoki, aukeratzen dute fokaturik agertu behar duen eremua
- Adibidez, Canon kamera gehienek 9 kolimadore dituzte eta guztien artean errobo bat irudikatzen dute. Fokatzeko bi aukera ditugu:

- Automatikoki
- Puntuala (9etariko bat)
- Beste adibide bat. Irudian hesi bat dago fokatuta eta atzealdean Anoeta (kanpo zelaia) azaltzen da fokatu gabe. Kamera berarekin nola lortuko genuke atzealdea fokatzea?
 - Fokatze automatikoa erabilia, kamerak gertukoena aukeratuko luke eta hesia bakarrik agertuko litzateke aratz.
 - Edo atzealdean kokaturik dagoen puntu bat hartuko bagenu aldiz aldatu egingo litzateke irudia.

(Anoeta ikusten da, edo anoetaren aurreko hesia ikusten da)

8. DIAFRAGMA


- Begiaren IRISA litzateke Kameraren diafragma
- Diafragma eta obturadorearen bitartez irudiaren eratzea kontrolatuko dugu.
- Kamerak jasotzen duen argi-kopurua bi modutara kontrola daiteke: diafragma bidez edo obturadorea erabiliz. Atal honetan lehen puntuaz mintzatuko gara.
- Diafragma irekigailu aldakorra da. Xaflatxo batzuk ditu teilakaturik, erdialdean zulotxoak uzten dutenak.
- Zulotxoaren tamainaren arabera, **argi gehiago** (oso irekia badago) edo gutxiago (**itxiago** badago) sortuko da.
- Objektu edo eszena **iluna** fotografiatzen diafragma zabaldua erabiliko da, horrela argi gehiago sar dadin.
- Objektua **ongi argiztaturik** badago, diafragmaren zuloa txikiagotu egiten da, horrela pelikulentzat esposizioa txikiagoa izango delarik.
- Diafragmaren irekidura eraztun baten biden menperatzen da. Eraztun horretan, f zenbakiak dituen eskala baten adierazita dago irekidura. F zenbaki bakoitzak hurrengo zenbakiaren argia baino bi aldiz handiagoa (edo erdia) igarotzen uzten du.
- “F zenbakiak” hauek dira: F1 - F1,4 - F2 - F2,8 - F4 - F5,6 - F8 - F11 - F16 - F22 - F32 - ...

- Bestalde, azken zenbakia F22 baino txikiagoa izan daiteke, argiztapen-baldintza berezietan lan egiten duten objektiboetan (makro objektiboetan adibidez, eremu-sakonera handiagoa izateko).

9. EREMU SAKONERA

- Fokaturik dagoen objektuaren aurretik eta atzetik aratz edo garbi agertuko den aldeari eremu-sakonera deritzogu (gero eta F edo diafragma handiago, eremu sakonera txikiago)
- Dena aratz agertzeko, hau da, eremu-sakonera handia lortzeko (fondo ere bai enfokatuta ikusteko), diafragma itxiak (f16, f22) erabiliko ditugu
- Aldiz, atzealdea zirriborrotu atera nahi baldin badugu **diafragma irekia** erabiliko dugu (F 2,8 ; F 3,5) eta eremu-sakonera txikia lortuko dugu.

Zenbaki altuak eta diafragma txikiak erabilita, eremu sakonera handiagoa lortuko da. Adibidez, F 8 eremu sakonera handiagoa izango du F 1,8-k baino, diafragma txikia duelako, hau da, zenbakia zenbat eta handiagoa izan orduan eta eremu-sakonera handiagoa egongo da.



10. OBTURADOREA ETA OBTURAZIO - ABIADURA

- Irudi-sentsorea argitan zein momentutan eta zenbat denboraz egongo den zehazten ditu obturadoreak (“klisk” bat egiten zenbat irauten duen). Hau da, jasorako argi-kantitatea kontrolatzen du, diafragmarekin batera. Gauza berdina egin dezakegu Diafragmarekin eta Obturadorearekin, biekin argia kontrolatu dezakegu baina modu desberdinetan.

- Ze pasako litzateke obturadorea denbora luzez irekita utziko bagenu?
- Obturadorea denbora luzez irekita badago argi asko sartuko da kamerara. Obturadorearen abiadura bikoiztuz gero, adibidez, 1/30etik 1/60ra aldatzen badugu, sartuko den argi kopurua erdia izango da. Aldiz, 1/30etik 1/15era aldatzen badugu, abiadura motelduz, argi kopurua bikoiztu egingo da.
- Orduan eta azkarragoa, orduan eta argi gutxiago utziko dio pasatzen.
- Adibidez, diafragma f8-tik f5,6ra pasatzen badugu, zuloa zabalduz, eta aldi berean, obturazio-abiadura 1/15etik 1/30era aldatzen badugu, abiadura azkartuz, sartzen den argi kopurua bere horretan mantenduko da, batetik galdu duguna bestetik errekuperatzen dugulako. Alegia, oreka bat bilatu behar da diafragmaren eta obturadorearen artean.
- Abiadura 1s jartzen duenean segundo batekoa dela esan nahi du; 1/2s segundo erdikoa; 1/4s laurdena; 1/100s ehunena; 1/1000s milarena....
- Kamera digitaletan LCD monitorean agertzen da obturazio-abiadura, gehietan diafragma eta ISO balorearen aldamenean
- **Obturazio - abiadura eta mugimendua:**
 - Mugimenduan ari den objektua erregistratu nahi dugunean, gutxienez 1/125eko abiadura erabili behar dugu. Izan ere, abiadura txikiagoetan zirriborrotsu edo "mugiturik" agertuko zaigu motiboa.
 - Mugimenduak ekiditeko honako aholkuak izango ditugu kontuan:
 - Motiboa oso arin badoa, esaterako F-1eko bolidoa, oso abiadura altua erabiliko dugu: 1/250, 1/500, 1/100 edo 1/2000
 - Gauza bera egingo dugu kamera desplazatzen denean; gu ibilgailuan goazenean, adibidez.
 - Bestalde, erabili behar den abiadura geldoa baldin bada, hau da, 1/60 edo txikiagoa, kamera ongi finkatu behar dugu tripodean. Oso geldik mantentzen saiatzea edo zuzenean tripode bat jartzea, azken hori da egokiena.
 - Mugimenduan argazki bat atera nahi badugu, pertsonak izozteko 1/1000eko abiadura erabiliko dugu. Horrela, uretara jauzia egiten ari diren gazteak izoztuta daudela dirudite.
- Zenbat eta foku-luzera handiagoa erabili, orduan eta abiadura lasterragoaz baliatuko gara. Beraz, teleobjektiboarekin abiadura azkarragoa erabiliko dugu.
- Zeri emango diogu lehentasuna: irekidurari edo abiadurari?

Argiztapen-baldintza normaletan, abiadura azkarra eta irekidura handia, edo alderantziz: kamerak argi-kopuru berdina jasoko baitu.

- Hurrengo koadroan ikus dezakegu esposizio zehatz bati dagozkion konbinazioak. Guztiekin lortzen da argi kopuru berbera, gure lehentasunaren arabera aukeratuko ditugu.



Aukera guztiekin lortuko dugu argi-kopuru berbera. Abiadura azkartzen dugun neurrian, diafragma irekidura zabaldu egin behar dugu. Aitzitik, abiadura moteltzen dugunean diafragma itxi egin behar dugu.

Bi aginteak konbinatuz, esposizio bera lortu dugu. Emaitzak, ordea, desberdinak izango dira: objektu mugikorren araztasuna eta eremu-sakonera desberdinak direlako kasu bakoitzean.

- Adibidez, futbol partidu baterako 300mm-ko **teleobjektiboa** erabili behar badugu koadratze egokiak lortu ahal izateko, derrigortuta egongo gara lehentasuna **obturazio-abiadura**ri ematera.

Argazkia hartzerakoan sortzen diren mugimendu txikienak ere eragin handia duelako azken emaitzan. Horrela, irudia izoztea komeni da, abiadura azkarra erabiliz. Baloia airean ikusten dugulako dakigu futboleko jolasten ari garela, bestela ez genuke esango mugimendurik dagoenik, bi jokalaria eta baloia izoztuak baitaude.


- Beste kasu batzuetan, **diafragma**ri emango diogu lehentasuna, agian **eremu-sakonera** zaindu nahi dugulako. Orduan, ahal den diafragma itxiena erabiltzen saiatuko gara, eta, ondoren, kamerak berak aukeratuko du diafragma horri dagokion abiadura.
- Batzuetan, argi-mailak irekidura/abiadura konbinazioa mugatu dezake. Izan ere, zerbait egoeratan, **argi gutxi** egonez gero, ez dago abiadura geldo eta irekidura handia erabiltzea baino beste erremediorik.

11. EKORKETA (BARRIDO)

- Mugimenduan dagoen zerbait harrapatzeko, kamera ere mugimenduan jartzea. Bizikleta bat grabatu nahi badugu, guk kamera mugitu bizikletaren mugimendua jarraituz. F1-eko kotxeekin ezinezkoa da, habiadura izugarrikoa delako.
- Mugitzen ari den objektu/subjektu bati argazkia ateratzen badiogu, ekorketa eginez, lortzen dugun irudian mugitzen ari **den elementu hori aratz** (enfokatua) azalduko zaigu eta atzealdean mugimendua ikusiko da. Horrela, argazkiari **bizitasuna edota dinamismoa** emango diogu eta abiadura-sentsazioa islatzea lortuko dugu.
- Ekorketa lortzeko fotografiatutako elementuari jarraipena egin behar diogu kamerarekin eta, kamera gelditu gabe, kliskagailuari eragingo diogu. Eraitza egokia lortzeko garrantzitsua da “klisk” egiten dugun unean kamera mugimenduan egotea.
- **Atzealdea izoztua ez agertzeko obturazio_abiadura motela** erabili behar dugu; 1/30s-koa edo motelagoa. Horrela, irudiak indar handiagoa dauka: **dinamismoa**. Horrelakoak erabiltzen dira mugimendua dagoela erakusteko, irudi hauek mugimendua erakusten dute eta ez futbolarien argazkiak bezala, baloia airean dagoelako imajinatzen dugula mugimenduan dagoela.

12. SENTIKORTASUNA ETA ISO BALOREAK

- **ISO baloreak eta esposizioaren kalkulua:**



(izatez Parisko dorrea gela ilun batean dago, eta tranpa moduko bat da ISO jartzea argia “sortzeko”; dana dala, asko jarriz geo zikina ateatzea irudia)

- Esan dugu esposizioa abiadurak eta diafragmak kontrolatzen dutela. Orain, hirugarren aldagaia sartuko dugu jokoan: pelikularen sentikortasuna, kamera analogikoetan, eta sentsoreari jartzen diogun sentikortasun maila, digitalean.

- Zenbat eta ISO zenbaki altuagoa erabili, handiagoa izango da argiarekiko daukagun sentikortasuna, eta aukera emango digu diafragma itxiagoak jartzeko edota obturazio abiadura azkarragoak erabiltzeko.
- Egoera zailetan lan egiteko pelikularen sentikortasuna areagotzea komeni da. Kamera digitaletan badugu aukera sentikortasuna gehitzeko ISO balore handiagoak aukeratuz.
- Sentikortasuna ISO kodean oinarrituz aukeratuko dugu. Sentikortasun arruntenak honako hauek dira: 50 ISO, 100 ISO, 200 ISO, 400 ISO, 800 ISO eta 1.600 ISO... Badaude handiagoak eta txikiagoa ere, baldintza berezietan lan egiteko erabiltzen direnak.
- 400 ISO-ko baloreak 200 ISO-koak baino bi aldiz sentikortasun handiagoa du, eta zenbakia bikoizten bada, esposizioak behar duen abiadura edo diafragma puntu bat aldatuko da. Sentsibilitatea bikoizten bada puntu bat aldatu dezakegu, eta horrek, argi gutxiagorekin lan egiteko aukera ematen digu.
- Diafragma puntu bat ixten badugu, argi kopuru erdia sartuko da, beraz, esposizioa mantenteko, ISO balorea bikoiztu egin

100 ISO → 200 ISO → 400 ISO


F8 → F11 → F16

Argi erdia → Argi laurdena

- Oso argi gutxi izanez gero, diafragma irekiak eta abiadura motelak erabiliko ditugu. Baina abiadura ezin denean gehiago moteldu, dena mugituta azalduko delako, ISO balorea handitu dezakegu. Prozesio bat gaez (argi gutxi dao + jendia mugimenduan), ezin dezu hori oraindik ere gehiago moteldu... baina gaua da eta ez dago argi askorik.
- Oso azkar mugitzen ari den objektu bat izozteko obturazio-abiadura handia erabili beharko dugu. Horretarako, diafragma zabalarena erabilia ere nahiko argi sartzen ez bada, irtenbidea, ISO balorea handitzea izango da.

13. BIKORRA ETA ZARATAREN ARAZOAK

- Sentsibilitatea asko handitzen dut eta listo... Ba ez! Sentsibilitatea handitzeak ere bere arazoak ematen ditu
- Baina sentikortasuna areagotzen dugunean arazoak sortzen dira. Pelikularen kasuan, bikorra loditu egiten da, eta argazkia handiagotzen bada argi eta garbi nabarmenduko dira irudia osatzen duten puntuak.
- Kamara analogikoetan sentsibilitatea handitzen badugu, irudi pixelatuak ateratzeko aukera gehiago dago.
- Aipatu dugu kamera digitaletan ere hainbat sentikortasun (falta...)
- Kamera digitaletan ere arazoak sortzen dira ISO balore altuekin lan egiten badugu. Kasu honetan, bikorraren ordez, **“zarata”** sortzen da.
- Egun argiz badago eta sentsibilitate oso altua badugu: “zarata” osatzen duten koloredun puntu ugari aterako zaizkigu, irudi osoa pixelatua. Beste arrazoi batzuen artean, ISO balore altuekin lan egiten denean kamera digitaletan irudia degradatzean duten pixel bizkarroiak edo parasitoak sortzen dira.
- Argazki digital batean “zarata” dagoela esaten dugu irudia degradatzen duten pixel bizkarroiak agertzen direnean. Kameraren tresna elektronikoen nahi gabe sortzen dituzten pixel bizkarroi horiek eta, kasu gehienetan argazkia desitxuratu egiten dute.
- “Zarataren” arazoa areagotzen da ISO balore altuekin lan egiten dugunean, hau da, 400 ISOtik gorakoak.
- “Zaratak” eragin handiagoa izaten du irudiaren parte ilunetan.




- Arazoa saihesteko gomendatzen da ISO balore baxuenak erabiltzea: 64 ISO eta 100 ISO.

Zein da soluzioa? ISO balore txikiak erabiltzea. Berez argia baldin badago ahal bada ez erabili ISOrik.

- Zenbat eta kamera hobea izan orduan eta zarata digital gutxiago aterako du. **Kameraren sentsorea handia denean “zarata” gutxiago** ateratzen du, horregatik kamera profesionaletan gutxiago azaltzen da arazo hau.

14. ZURIEN BALANTZEA

- Zurien balantzeaz hitz egiteko hasiko gara kolore-tenperatura definitzen.
- Esan dezakegu argazki baten kolore-tenperatura irudiaren gune zurietan gailentzen den koloreak finkatzen duela. Adibidez, beheko argazkian zer kolore gailentzen da zuri gunetan?
- Hemen, hiru aukera kolore tenperatura desberdinekin. Bakoitza bere aldetik ikusten bada ez da nabarmentzen kolore bat gailentzen dela. Aukera desberdinak konparatzen direnean begibistakoa da aldea



- RAW formatuan lan egiten badugu, ez dago inongo arazorik kolore-tenperaturarekin. Edozein izanda ere, berehala aldatzen da geure gustura.

[GELAKO PRAKTIKA 1]

15. ESPOSIZIO-MOTAK

- Kamera aurreratuenek esposizioa burutzeko hainbat era dute. Argazkilariak bere helburuak aintzat harturik erabakiko du modu egokiena



funtzio aurreratuak edo sormenezkoak (MASP) argazkilariaren esku

oinarrizko funtzioak edo automatikoak (gainontzeko guztiak)

1. Irekidurari lehentasuna (A, Av):



- Argazkilariak nahi duen irekidura finkatzen du eta esposimetroak argi-baldintza horietarako egokia den abiadura hautatuko du.
- Eremu-sakonera kontrolaturik dago, baina batzuetan, subjektua mugitzen ari baldin bada, argazkia zirriborrotsu ager daiteke, dagoen argiarekin aukeratutako diafragmari abiadura motela dagokiolako.
- Ze kasutan erabiliko genuke aukera hau? Erretratuetan erabiliko genuen, eremu sakonerari (f/) garrantzia handia ematen zaiolako eta hortaz, diafragmaren eremu-sakonera menderatu dezakegu.

2. Abiadurari lehentasuna (S, Tv...):



- Argazkilariak gogoko duen abiadura finkatzen du eta esposimetroak argi-baldintzetarako egokia den irekidura hautatuko du. Mugimendua kontrolpean dago, eremu-sakonera ordea ez.

- Zein kasutan erabiliko genuke? Mugimenduetako irudietan, abiadura handiko irudiak ateratzeko erabiliko dugu eta. Beraz, kamerak joera izango du diafragma asko handitu (hala, eremu sakonera txikia egongo da). Posible da ISOarekin jokatzeari, nahikoa argi ez badu. Rugbyko argazki honetan abiadura handia da



3. Eskuzkoa (M)



- Kontrol guztiak gure esku daude, guk erabakitzen baitugu diafragma, obturadorea eta ISOa. Irekidura eta abiadura hautatuko ditugu, fotometroak argi-esposizioa egokia dela adierazi arte.
- Sistemarik geldoena da, baina energia gutxien (pilak) gastatzen duena.

- Abantaila handia ditu, sormen fotografikoa erabat gara dezakegu: azken emaitza gure esku egongo da.
- Zein da sistema honek izan dezakeen arazoa? Asko mugitu behar da. Denbora guztian kontrolatzen joan behar gara eta horrek denbora asko kentzen digu.

4. Automatikoa (Auto)



- Sistemak irekidura eta abiadura zehazten ditu, aldez aurretiko programa baten arabera, maiz bisorean inolako oharrik erakutsi gabe.
- Erraz erabiltzen da, baina programaturiko baldintzak ezin dira aldatu.
- Oso eroso da prestatu gabeko edo bat-bateko argazkietarako, eta hasiberrientzat ere bai.
- Noiz erabiliko dugu? Denborarik ez daukagunean zer nahi dugun eta zer behar dugun pentsatu eta gauzatzeko. Adb: manifestazio batean, momentu batean edozer gerta baitaiteke.

5. Programatu daitekeen prozedura automatikoa (P, Ph, Ps, Pa...)



- Kamerak programa informatikoa erabiltzen du esposizioa kalkulatzeko, baina argazkilariaren aldaketa batzuk onartzen ditu.
- P esposizio-motarekin kamerak **diafragma** eta **abiadura** aukeratzeko automatikoki, baina ISO balorea, zuriaren balantzea, RAW formatuan egin ahal izatea, flasha blokeatzea eta beste hainbat aldagai geure esku gelditzen dira.

6. Erabat programaturikoa (ikurrak)



- Kamerak aurreikusitako egoera berezietara egokitutako programa aldaezinak erabiltzen ditu, argazkilariak aukeratzeko. Gehien erabiltzen direnak dira; erretratuak, gauz ateratako argazkiak, eguzkiaren sartu-irteerak, kirol argazkigintza, etab.


- Beste kamera batzuek, aipaturiko moduak ez ezik beste batzuk ere badituzte: C, A-DEP, SCN...
- Hauetariko bakoitzak bere funtzio propioa du. Dena den, ez dira ezinbestekoak

(baina ohikoena, aurretik ikusi ditugun gurbilak dira)



16. OBJEKTIBOAK

- Reflex kameretan objektiboak aldatzeko aukera dagoenez, argazki ona egiteko posibilitatea handiagoa da.
- **ANGELU HANDIA:** Gertu dauden objektuei argazkia ateratzeko balio du (distantzia motzak). 35mm-tik aurrera
 - Espazio zabalagorako ordea, angelu handia jarri beharko da. Objektiboen foku-luzera txikituz doan neurrian, eremu-zabalera handituz doa eta alderantziz.



- 35 mm-ko foku-luzera edo gutxiagoko objektiboak angelu handiak dira eta **eremu-zabalera handia** hartzen dute.
- EREMU SAKONERA ETA EREMU ZABALERAK:
 - Objektibo hauek **eremu-zabalera handia** hartzen dute, eta, era berean, **eremu-sakonera handikoak** dira. Bi kontzeptu hauek ongi bereiztea komeni da.

- Kamera eta subjektu-objektuaren arteko distantzia laburra denean erabiltzen dira batik bat angelu handiak.
- Gertu dauden elementuak handitu eta planoen arteko distantziak areagotu egiten ditu optika honek, sakontasun sentsazioa sortuz.
- Beste batzuetan argazkilariak derrigorrez erabili behar du objektibo hau, oso gertu dagoelako. Kamaratik gertuen dauden objektuak, gertuago egongo bazian bezelako sentsazioa ematen du, handiagotu egiten ditu.
- Konnotazio bereziak sortzeko erabiltzen da askotan.

- **ARRAIN BEGIA**

- 16mm baino gutxiagoko objektiboek "arrain begia" deitzen zaie. Irudia asko deformatzen dute.



- Arrain begiarekin sortzen diren eraldaketak begibistakoak dira. Gertukoa oso handia ikusten denez, kontu handiz erabili behar dira.

- Optika hauek espazio zabala bere osotasunean erakusteko tresna ezinbestekoak dira.



- Dena fokaturik atera nahi dugunean ere oso erabilgarria da objektibo mota hau, bere eremu-sakonera ia erabatekoa da.

- Objektibo honek **ez du balio erretratuak ateratzeko**, batik-bat gertuko argazkietan sudurra eta kopeta desitxuratu egiten dituelako.

- Optika hau gertuko erabiltzen bada ertzetako lerroak deformatu egiten dira eta bertikaltasuna galtzen du.


- Foku luzera laburtzen doan heinean efektu hau areagotu egiten da eta, horrez gain, lerroak biribildu egiten dira, "upelaren efektua" sortzen delarik.

- **TELEOBJEKTIBOA:**

Urrun dauden objektuei argazkia ateratzeko balio du (distantzia luzeak). 80mm - 3.000mm



- Urrun dagoen motiboaren irudi osoa hartzeko teleobjektiboa erabiliko dugu.



- Arestian esan dugu urrun dauden **motiboak** hartzeko erabiliko dugula teleobjektiboa.
- Orokorrean, bi efektu nagusi (erlaldaketa) sortzen dira teleobjektiboekin. Gertutik erabiltzen ditugunean eremu sakonera oso murrizta azaltzen dute, hondoa zirriborotsu ikusten delarik.
- Bestalde, urrutitik erabiltzen ditugunean **argazkiak sakontasuna galtzen du**; objektuak pilatuta agertzen dira; euren arteko distantziak erabat eraldatuta ikusten dira. Hala eta guztiz ere, dena aratz ikusten da.
- Teleobjektiboa urrutitik erabili da kasu honetan. (Irakaslearen azalpeneko irudi bati egiten dio erreferentzia. Adibide hau, diputatuen irudi bat zen) Planoen pilaketa nabarmena da. Argazkiak ez du sakontasunik. Perspektiba galtzen da.
- Teleobjektiboen foku-luzera 80mm-tik 3.000mm-rainokoa izan daiteke. Objektibo hauek **eremu-sakonera txikiko irudi handiak** egiten dituzte.
- Natura, paisaje eta kirol-argazkigintzan oso erabiliak dira. **Irudiak oso lauak dira** eta teleobjektiboa handia bada (200 mm baino handiagoa) tripodez eustea komeni da mugimenduak saihesteko. Hemen ere sartuko lirateke zinemaldian Paparazziek ateratzen dituzten argazkiak esaterako, urrutitik ateratzen da eta gertu gaudela ematen du, baina bestearekiko ezberdintasuna da kasu honetan atzekoa ere azaltzea

nahi degula, pertsona ezagun hori bere testuinguruan jartzea komeni delako.

- Teleobjetiboa oso handia bada (200mm-tik gora), tripodea erabiltzea gomendatzen da, mugimenduak saihesteko.
- Teleobjektiboak ez dira oso argitsuak, hau da, f zenbaki handiak eta ertainak baino ez dituzte. Adibidez, irudiko Canon 600 mm-koak f5.6 du.
- Objektibo hauekin lan egiten dugunean abiadura handia erabili behar da, edozein mugimendu biderkatu egiten delako.

17. OBJEKTIBOAREN FOKU-LUZERA:

- Arrain begia: 16 mm-tik aurrera (8mm) (16 baino txikiagoak)
- Angelu handia: 35mm-tik aurrera
- Makro
- Objektibo normala: 50 mm foku luzera
- Teleobjektiboa: 80 mm - 3.000 mm
- Kamera fotografiko arruntaren fotogramak 24 x 36 mm ditu.
 - Kamera analogiko arruntan objektibo normalak 50mm-ko foku-luzera du.
 - Optika honekin lortutako irudia gizakiaren behiak sortzen duenaren antzekoa da objektuen tamainari dagokionean.



18. ZOOM OBJEKTIBOAK

- Zoom 17-35mm (angularra)
- Zoom objektiboak foku-luzera aldakorra du eta zenbait abantaila badu, hala nola irudiaren tamaina era jarraituan aldatzea, enkoadratzea erraztea eta zenbait objektibo ordezkatzuz poltsaren pisua arintzea.
- Argazki-kazetarien artean asko erabiltzen dira optika hauek, batik bat, foku-luzera azkar aldatu behar dutenean, enkoadratzeak horrela eskatzen badu. Beraz, oso komenigarriak dira bat-batean alda daitezkeen egoeretarako.

- Zoom objektiboek arazoak ere badituzte, besteak, beste, argitasuna galtzen (zoom objektiboa 70mm-ra jarriz gero, 70mm-ko objektibo finko batek baino “F” –irekiera– txikiagoa izango du) dute eta kalitate onekoak oso garestiak dira.
- Gaur egunean azokan dauden kamera gehienek dute zoom objektiboa.
- Kamera hauen zoom-aren gaitasuna faktore biderkatzailean adierazita egoten da.
- Adibidez, zoom batek 17-51mm-ko foku-luzera baldin badu, esango dugu “3x” dela bere faktore biderkatzailea ($51/17=3$)
- Baldinbauzka 5,8 eta 23,2 mm-ko zoom-ak eskeintzen badizkigu, 4x adieraziko du.
- Eta 5,8 - 116mm-ko zoom-ak, 20x

19. OBJEKTIBO MAKROAK

- Objektibo normalaz ezinezkoa da fokatze-distantzia minimotik behera fotografatzea. Honi irtenbidea emateko makro objektiboak erabil daiteke eta horrela hurbilagotik fokatu dezakegu.
- Objektibo mota hauek arazo bat izaten dute; oso eremu-sakonera txikia dute. beraz, kontu handiz fokatu behar da. Tripodea ezinbestekoa da, kameraren dardara biderkatu egiten da.
- Kamera konpaktoek ere aukera ematen dute makro aukerarekin gertutik argazkiak egiteko. Kalitatea ez da izaten hain ona baina nahiko txukun gelditzen dira.
- Kamera konpaktoetan makroan egiteko aukera loretxo baten ikurrarekin adierazita egoten da. Jakiteko zein den argazkia ateratzeko erabili behar den distantzia eskuliburua irakurtzea komeni da.



2. GAIA: ARGAZKI KONPOSIZIOA

1. SARRERA

- DEFINIZIOA: Argazki konposizioa: masa, irudi eta tonu banaketa, komunikazio helburuarekin.
- Helburu horiek harmonia, oreka edo besterik gabe edertasuna izan daitezke. Beste batzuetan, ordea, justu kontrakoa bilatzen da.
- Inolako konposizio irizpiderik gabe ere egin daiteke argazkia
- Konposizio lege hauek, ez dira kapritxoz sortutako arau batzuk, oinarri bezala artearen alorretik datozen arauak dira. Marrazkigintzatik datoz, eta milaka obra plastiko behatu izanaren ondorio dira.
- Arau horiek lagungarri izan daitezke informazio edukiak zirrara eta indar handiagoz transmititzeko.
- Etengabe aldatuz doazen arauak dira. Beren oinarria artelanetan daukate.
 - Margolanen efektua lortzeko argazkiak ziren.
 - Adibidez: Robert Demachy. Piktorialismoa. Mugimendu honek argazkigintza artea bezala kontsideratzea lortu zuen.

(ez da margolan bat, argazki bat da)



- Intuizio eta inprobisazio dosi handiak eskatzen ditu konposizioak
- Konposizioa norberak modu pertsonalean eta berezitan interpretatzen dituen arau estetikoek osatzen dutela esan daiteke.
- Behin arauak menderatu direnean, ahaztu egin behar dira.
- Fotokazetaritzan, batez ere, informazioa transmititzea bilatuko dugu.

- Helburua, irakurlearekin komunikatzea izango da, modu azkar eta eraginkorra. Argazkiek zer gertatu den adieraziko digute.
- Horrela, alderdi formalak eta estetikoak, konposizioa barne dela informazioaren zerbitzuan egongo da beti.
- Kazetaritzaren ikuspuntutik, informazio eduki handiko argazkia beti baliotsuagoa izango da.



(kasu honetan irudia ez da kalitate hoberekoa, baina askotan irudiak berak ematen duen informazio garrantzitsuagoa da kalitatea baino. Kasu honetan lapurretaren momentua erakusten digu irudiak, eta gainera iskineko datuekin badakigu segurtasun kamara batek grabatutako irudia dela beraz %100 fidagarria, nahiz eta kalitatea edo argazkia ez horren profesionala eta horren polita izan)



Robert Cappa, Milizianoaren heriotza.

- Cartier-Bresson, argazkilari frantses ezaguna: “Burua, begia eta bihotza ikus-lerro berean jarri behar dira”.
 - Bere ustez argazkiaren ezaugarri nagusia: emozioak transmititzeko ahalmen ikaragarria du.

2. OINARRIZKO HIRU ELEMENTU

- a. Informazioa transmititzea
- b. Emozioak transmititzea: empatia
- c. Atsegin estetikoak transmititzea

3. ARGAZKIAK KAZETARITZAN...

- Sormenezko argazkian geuk gaia, unea, argia etab. aukeratzen ditugu.
- Fotokazetaritzan aldiz, gertaeren menpe egongo gara ia erabat

Sudafrikako gatazketako argazkiak ateratzen zituen argazkilaria da Kevin Carter. Berak aitortu bezala, 20 minutu egon zen zain argazki hori ateratzeko zain, enkuadrea. *Times* aldizkarian argitaratu zen, eta horren ondorioz, *Pulitzer* saria irabazi zuen baino hortik aurrera sekulako kritika gorra jaso zituen (“horrenbeste denboran nola egon zen mutiko horri lagundu gabe?”...). Berez argazkian agertzen den 3 urteko mutikoa ez zen ari gosez hiltzen lurrean, kaka egiten baizik edo hori diote.



Irudi horrek, mundu guztian zehar, kontzientzia asko mugitzea lortu zuen. Guk zein puntutaino lortu genezake gertatzen ari den hori aldatzea? Argazkilaria horrek ez balu argazki hori aterako, hau da, kamera utzi eta mutikoari laguntzea erabaki izan balu, munduak ezagutuko luke Sudanen gertatzen ari zena?

- Argazkilaria ez da informazio emaile soila izan behar.
- Argazkilaria gaiaren funtsa harrapatu behar du ideia nagusian zentratuta.

4. KONPOSIZIOAREN ELEMENTUAK


- Koadrotzea (Formatua)
- Herenen araua
- Aireak
- Interes-puntu nagusia

5. KOADROTZEA (FORMATUA)

- Formatua erabaki behar dugu:
 - Bertikala
 - Horizontala
 - Mozketa etzana,
 - Muturreko mozketa etzana,
 - Jatorrizko formatua,
 - Zutikako mozketa,
 - Muturreko zutikako mozketa
 - Goialdeari lehentasuna
 - Behealdeari lehentasuna
- Gai batzuek zutikako formatua (bertikala) eskatzen dute, beste batzuek, ordea, etzana (horizontala).
- Etzanak sentsazio egonkor eta lasaiagoa ematen du, baina... estatikoa bihurtzen du argazkia
- Formatu luzaranak iradokizunak areagotzen ditu.
- Argazkia atera edo editatzeko garaian beldur barik ebaki behar dira **norberaren argazkiak**. Beldurrik gabe moztu dezakegu irudia, batzuetan kostatzen zaigu argazkilarien lana ulertzea. Kontu handia izan argazkilarien argazkiak mozteko garaian, kazetariari azken hiru paragrafoak moztea bezala izango litzateke. Beraiek formatuak ondo pentsatuak aukeratzen dituzte, esanahi bat eman nahi izan diote formatua aukeratuz eta guk hori mozten badugu... haien lana pikutara bidaltzen dugu.
- Eredu estandarrek ez daukate argazkiaren formatua zertan mugatu behar.
- Zati bat bakarrik aukera genezake. Gure beharren arabera aukeratu dezakegu editatzeko orduan zer erabili, arreta guinea ondo ezberdintzeko. Espresatu nahi dugunaren arabera, era bat edo bestea erabiliko dugu. Gogoratu kongresuko emakumearen irudia: bakardadea erakutsi nahi zen argazkian hortaz, irudia moztu eta bere lerroa bakarrik utzi zuten ikusteko benetan bakarrik zegoela, plano zabala utziko balitz eluke bakardade sentsazio hori transmitituko ze fijo gorago edo beherago jende gehiago zegoela.

6. HERENEN ARAUA

- Argazkia 9 pusketetan banatzen du eta arreta gune nagusiak erdiko lau puntutan jarri beharko litzatekeela esaten du. Lau puntuetatik zein aukeratuko dugu? **Goiko eskuineko puntua** lehenesteko joera dagoelako. Zergatik? Begiak errazago korritzen du begirada eta gehienetan, beheko ezkerreko angelutik sartzen da koadrora.



- Beraz, interesgunea goiko eskuineko puntuan kokatzeko joera dago. Ahal bada hor jarrita ondo, baina beharraren arabera edo testuinguruaren arabera beste nonbait jar liteke, baina beti edo ahal bada behintzat, lau puntu horietako bat.
- Ez dago puntu nagusian zehatz-mehatz zertan kokatu beharrik.

Zer da ezkerreko irudia? eta eskuinekoa?



Ezkerrekoa Erdian zentratua egongo litzateke. Zergatik ez da simetrikoa? Besoak diferente dituelako, orduan simetriko bihurtzen argazkia moztu eta kitto.

Eskuinekoa: Simetrikoa izango litzateke, lehen plano delako, erdian kokatuta dagoelako eta aurpegia izatez simetrikoa delako.

- Erretratuetan, irizpiderik gabe, motiboa erdigunean kokatu ohi dugu.
- goialdetik ebaki egingo dugu bere aurpegiaren erdigunea argazkiaren erdigunea ez dela erausteko
- Herenen arauren erabilera bat: **Zerumugaren legea**
 - Zerumuga erdigune geometrikoan kokatzen badugu, konposizio laua eta adierazkortasun eskasekoa lortuko dugu.
 - Kasu horietan, herrenkako zatiketa erabiliko dugu, zerumuga-lerroa koadroan kokatzeko.
 - Zerumuga bai beheko lerroan edo baita goiko lerroan ere.
 - Hiru aukera:

- Jatorrizkoa



- Behealdeari lehentasuna




- Goialdeari lehentasuna



- Zutikako konposizioetan berdina gertatzen da. Argazkiaren zatiketa kasu honetan, argazkia zatitzeko marra bertikalean marraztuko da.
- Lerro (ardatz) nagusia ez dugu erdigunean kokatuko.

7. AIREA ARGAZKIAN

- Airearen bitartez hobeto ulertzen dugu argazkia
- Atzeko fondoa lisoa denean, airea emateko arazorik ez dago. Baina fondoa ez bada laua, airea emanez gero zabor gehiago sartuko zaio argazkiari:




- Fondo laua duenean erraza da airea ematea.
- Fondoa kargatua badago, zikinkeria asko sartzen da aire emanez gero. Kasu hortan, hoberena fondoa desenfokatzea izango litzateke
- Batzuetan, bigarren mailako elementuak izaten ditu.
- Airea:
 - i. Hartualdiaren konposizioa zehazten laguntzen du
 - ii. Eszena/kontestua ulertzen laguntzen du.
 - iii. Interesgune nagusia non dagoen adierazten dio begiari.
 - iv. Nabarmenarazi egiten du gainerako guztiarekin.
- Aireak okupatzen duen tarteak fokuz kanpo utz dezakegu, interesgunea azpimarratzeko.
- Arreta zehatz eta garbi ikusten den gaiari jarriko diogu.



Esandakoa, airea eman nahi zaio baina atzekoa zikinkeria bihurtu daiteke, hortaz aukerarik hoberena atzekoa desenfokatzea izango litzateke.

- Enkoadraketa oso itxietan ez dago aire premiarik.




- Airea subjektuak begiraten duen norabidean kokatzea ohikoena. Bestela tentsio egoera bat islatzen du.
 - i. Norabide arrunta: airea aurrealdean, pertsonaren begirada jarraikiz.
 - ii. Ezohiko norabidea: tentsioa. Airea atzealdean uzten du. Irakurleari zerbait “arraroa” irudikatzeko.

8. INTERES-PUNTU NAGUSIA

- Argazkiaren interesgunea nabarmendu behar dugu.
- Interes-puntu bat baino gehiago baldin baditu, argazkiak indarra galtzen du. dena enfokatuta baldin badago eta elementu asko baldin badaude, irakurleak hasierako lehen unetik ez daki nora begiratu. Normalean, halako argazkietan fijatzen zara ZU agertzen zarela baldin badakizu. Bestela... nerkez fijatuko zara enfokatua dagoen GUZTI-GUZTIAN




- Ekarpin-puntu ugari.
- Gogoratu katuaren irudia: katu bat armario baten barruan. Oso zaia zen interes-puntua katua zela jakitea, Kolakao potea, Kokakola, Azukrea...



denetik zegoen armairuan eta katua pasaba muy desapercibido.

- Interes-puntu nagusi bakarra egongo da argazkian interesgune bakarra dagoenean.
- Gertaeraren muina nabarmentzeko ahalegina egingo dugu, idatziz kontatu nahi duguna bisualki ere kontatzeko.
- Testuinguruko elementuak ere erabili daitezke: interes gunea argi dago zein den, erdi erdian kokatu duelako argazkilariak. Baina testuingurua zein den ere argi utzi nahi zuen. Kasu honetan posible zen, gainontzeko guztien aurpegiak ez dira ikusten apenas eta gehienak etzanda daude.



- Enkoadraketa egokia bilatuko dugu.
- Interesgunea azpimarratzeko ze beste teknika ikasi dugu 1. gaian? (Haur soldaduen irudia gogoratu)
 - Eremu sakonera gutxitu dezakegu.
 - Argia balia dezakegu.
 - Fokatzeko okerrak eta kontra argiak konbina ditzakegu.
- Askotan, informazio-premiek interesguneak elkarren ondoan ipintzera behartzen gaituzte (Adibidez, M-11ko atentatua Madrilen; Charlottesville-ko atentatua 2017an) ez dakigu nora begiratu; autoari, anbulantziari...
- Bigarren mailako elementuak sartzen baditugu, elementu nagusia indartu behar dutela kontuan hartuko dugu.
- Elementu nagusia indartu behar dugu.

9. INTERESGUNEA NABARMENTZEKO BALIABIDEAK

- Enkoadraketa (planoak)
- Hartualdi-angeluak eta hartualdi behera
- Lerroak (ikuspenaren ibilbidea)
- Ikuspuntua
- Atzealdea
- Perspektiba

10. ENKOADRAKETA (PLANOAK)

- Gaia bakartzeko eta nabarmentzeko aurreneko urratsa: planoak aukeratzea
- Hainbat enkoadraketa (plano) aukera dezakegu, helburu komunikatiboen arabera. Segun zer komunikatu edo nabarmendu nahi dugun, plano bat edo beste aukeratuko dugu.
- Planoaren kontzeptua erlatiboa da, ohikoena giza gorputza erreferentzia moduan erabiltzea da. Hortik ateratzen da zer den plano erdi bat, zer plano orokorra... dena giza gorputzaren erreferentziari jarraituz egiten da.
- Plano orokorra giza erreferentzia gisa hartuta:



- Xehetasun planoak giza erreferentzia harturik eta, aldi berean, plano orokorra tximino txiki hau erreferentziatzat harturik.



- PLANOEN ESKALA

- Plano orokorrak: Plano orokorren bitartez, pasarte hedadura zabalarekin erakusten dugu.

- **Plano orokor handia:**

- Espaziorik zabalena hartzen du.
- Paisaiak du lehentasuna, ez pertsonak.
- Objektibo angelu handia erabiliko da argazki mota hau ateratzeko.



(Objektibo angelu handiarekin hartutako irudia izango litzateke)

- **Plano orokorra:**

- Subjektua edo gauzakia (objektua) aintzat hartzen du.
- Pertsona agertzen da, ikusteko nahikoa, baina protagonista testuingurua bere osotasunean da; zertan ari diren pertsona horiek eta non.
- Plano orokorra itxi dezakegu, subjektuarengana hurbiltzeko.



■ Multzoko plano orokorra

- Ikus-eremua txikitu egiten du eta espazio txikiagoan sartzen ditu pertsonaiak
- Plano guztia pertsonak okupatzen du. Atzealdean dagoenari ez zaio batere protagonismorik ematen.
- (Biluzik dagoen pertsona bat iturri batean igota eta inguruko jendea beari begira) Zergatik eman nahi izan dio garrantzia pertsonari bakarrik? Bi arrazoi: Eremua itxi duelako eta eremu sakonera erabiliz, inguruko jendea desenfokatu duelako.



○ Tarteko planoak

■ $\frac{3}{4}$ plano edo amerikarra

- Subjektua hurbildu ahala, emozioaren inguruko informazioa areagotu egiten da.
- Plano amerikarrak belaunen gainetik ebakitzen du subjektua.
- Ez da inoiz moztuko artikulazioetatik (belaunan gaintik beti, ez moztu juxtu belaunean)



- Plano amerikarrak western-etan du jatorria. Esaten zen zapatetan aurrezten zutela eta orduan zapatak ez erakusteko egiten zela.



■ Plano ertaina

- Tarteko beste plano-mota plano ertaina da.
- Lehen planoak: Arreta osoa subjektuari zuzentzen dio
Formatu etzana.
Emozio zama handia eraman dezake. Oso egokia sentipenak islatzeko.

■ Lehen planoak:

- Aurpegia erretratatzeko egokiena.

■ Lehen plano laburra:

- Zirrarekin oso lotuta dago
- Plano mota hauetan atzealdeari kasu gutxi egiten zaio.


■ Xehetasun planoak

- Planorik hurbilekoena da.
- Ekintza bateri lotuta izaten dira eta argazkiak hori irudikatu nahi izaten du.

PLANOEN ESKALA	
Plano orokorrak	Plano orokor handia Plano orokorra Multzoko plano orokorra
Tarteko planoak	3/4eko planoak edo amerikarra Plano ertaina
Lehen planoak	Lehen planoak Lehen plano laburra Xehetasun planoak

11. HARTUALDI ANGELUA

- Hartu angeluaz ari garenean, motiboak eta kamerak horizontalarekiko eratzten duten angelua izango dugu gogoan.
- HARTUALDI IKUSPUNTUA VS ANGELUA: Hasteko, ikuspuntua eta hartualdi-angelua bereiziko ditugu.
- Ikuspuntua argazkilariak gaiarekiko duen kokapen fisikoak adierazten du.
- Ikuspuntua: argazkilariak gertaerakiko duen kokapena.
- Konposizioa osatzen duten elementuen plano berean dago argazkilaria.
- Adibidez, ez da berdina izango manifestariak aurrez-aurre ala atzetik fotografatzea.
- Motiboak eta kamerak horizontalarekiko eratzten duten angelua izango da hartualdi angelua.



- Goitik beherakoa, behetik gorakoa edo horizontala izan daiteke.
- Horizontala denean, lurrarekiko paraleloa izango da.

- POSIZIOAK:

- Normala:

- Posizio horizontala (normalean argazki gehienak horrela ateratzen dira). Begien parean kokatu ohi du kamara argazkilariak.



- Pikatua:

- Goitik behera (Txoriaren ikuspegia).



- Zenitala:

- Pikatuaren muturreko posizioa, hau da, horizontalarekin 90s.
- Kamera motiboaren bertikalean kokatuko litzateke, goiko aldetik.
- Ez dira askotan erabiltzen, eta hortaz komunikabideetan erabiltzen denean arreta deitzen dute asko. Oso egoera espezifikotan erabili ohi dira, eta erabiltzen denetan, zerbait oso konkretua erakutsi izan nahi duelako izan da.




- Kontrapikatua:

- Behetik gora



- Nadirrekoa

- Kontrapikatuaren muturreko posizioa. yeah



12. BESTE SAILKAPEN BAT

- Hartualdi horizontala (normala)
- Hartualdi zeharra edo aberrantea
 - Hartualdi aberranteak harridura, tentsio edo egonezina sor dezake ikuslearengan. Desoreka eta desegonkortasuna iradokitzen ditu. Zinean asko erabili izan da ezohiko egoeretan edo zerbait gertatuko dela adierazteko.
 - Kameraren alde baterako makurdura kontuan harturik, hartualdi normala edo horizontala, eta zeharra edo aberrantea bereiz genitzake.
 - Argazki hauek ateratzerakoan kontuz ibili behar da ze kamera ez bada gehiegi okertzen, akatsa dela emango du.
 - Inklinazio bat antzematen da



12. ESANAHI ALDEKO DESBERDINTASUNAK

- Ikusi ditugun posizio horiek bi arrazoiengatik erabili ohi dira:
 - Estetikoa
 - Konnotatiboa
- Arrazoi horregatik, esan dezakegu **pikatu** batek txikiagotu egiten duela subjektua
- **Kontrapikatuak**, ordea, garrantzia ematen diote objektuari.
 - Kontrapikatuak erabilera ideologiko zuzena eduki dezake. Zergatik? Pertsona baten boterea eta indarra goraipatzen saiatzen garelako, eta horregatik emakumeengan oso gutxi erabiltzen da.
 - Oso kontrapikatu gutxi erabiltzen dira emakumeekin, ez da kasualitatea.
- Hartualdi angeluan erabiltzen dugun optikak areagotu dezake efektua (angulu handia)

13. IKUSPENAREN IBILBIDEA: LERROAK

- Bi motatako lerroak izan daitezke:
 - Adierazia
 - Iradokia
- Gizakiaren begiradak arreta deitzen dion zerbait bilatzen du argazkian.
- Puntu batek erakartzen duenean, begirada hara zuzentzen da.
- Begi dantza guztiz kaotikoa izan daiteke edo argazkilariak gida dezake interesguneraino.




(lerroak gure begirada bideratzen laguntzen du)

- Lerroak dinamismoa eragiten du, norabideak definitzen ditu eta tentsioa sortzen du. Zergatik dinamismoa? Argazkira begiratzean, begirada mugitzea behartzen gaituelako, hau da, lerro zuzen bat marraztea, beste alde/objektu bat begiratzuz.



- Ageriko lerro diagonalak lehen planoan. Adb: lehen plano bat, pertsona diagonalean jarrita.

- Lerro iradokia diagonalean: begiratu batean, keinu edo joera batean.



- Lerroak eragina du irudiko gainerako elementuetan.
- Lerroak markatzen du irakurketaren norabidea, irakurleari begi-ibilbide jakin bat eginez.
- Lerroak ekintza aurkitzen laguntzen digu.
- Argazki on batek ikusten denbora gehiagoz egotera gonbidatuko gaitu; hori da argazkilariaren helburua.
- Esperientzia atsegina izan behar du ikuslearentzat, errepikatuz behartuko duena.

Manifestazio jendetsuetako irudiak ikusten denbora asko pasatzen badugu, gure burua aurkitzen gaudelako edo izango da. Ez da atsegina delako argazkia izatez, ez dituzu ezaugarriak bilatuko.

- Argazki batzuetan, balio estetikoaren, emozioaren alorreko eta informatiboaren bateratzen dira. Cartier Bresson-ek halako kasuetan **“une erabakigarriaz”** hitz egiten zuen. Argazkilari frantses hau omen da fotokazetaritzaren sortzailea.
- Paisaieetan, aipatu dugun begi-ibilbidea bide batek, erreka batek, arbolaldi batek edota bihurtzeko batzuek gauza dezakete.
- Lerroak eratzen du konposizioaren eraketa.

- Beste batzuetan, elementu geometrikoak erabiltzen dira.

- Formak:

- Hirukia



- Erronboa
- Diagonalak
- Ardatzak

- Zirkulua



- Lerroa iradoki denean, begiratu batean, keinu edo joera batean oinarritzen da. Lerro iradokiak normalean, begirada edo keinuekin osatzen dira.
- Lerro bilatuenak, beraz, kurbak dira, beren adierazkortasunagatik.
- **Lerro bertikalek** orokorrean, ekintza indarra edo energia adierazten dute.
- **Lerro horizontalek**, lasaitasuna, atsedena edo sendotasuna iradoki dezakete.
- **Diagonalek** berriz, monotonia hausten dute eta dinamismoa ematen dute.
- Lerroaren funtzio plastiko nagusiak ondorengo hauek dira:
 - Norabide-zentzuak sortzea, oinarritzkoak baitira konposizioa antolatzeko.
 - Konposizioari perspektiba ematea, irudi lauetan eta sakontasunean, batik bat.
 - Planoak bereiztea eta espazio antolatzea.
 - Bi dimentsiotako objektuei bolumena ematea.
 - Objektuaren forma eta egitura (hirukia, erronboa...) irudikatzea.

14. IKUSPUNTUA

- Ikuspuntua aukeratzea: ikuspuntua alda dezakegu motiboarekiko gure posizioa aldatzen denean.
- Ikuspuntua aldatzeko: alde batetik bestera mugituko ginateke. *Eiffel* dorrea atera dezakegu kontrapikatu baten bidez, edo horizontalki.

Objektua edo interesgunea berdina da, baina ikuspuntua aldatzeak zer eragiten du? Orduan eta ikuspuntu originalagoak erabili, orduan eta arreta gehiago eskuratuko dugu. Horregatik prentsan oso garrantzitsua da ikuspuntua lantzea.

- Perspektiba ezohikoetatik "inpaktu" handiko argazkiak sor daitezke.
- Objektuei hainbat posiziotatik begiratzen ikasi behar dugu, ikuspuntua nola aldatzen den ohartzeko.
- Objektuei goitik behera begirata perspektiba minimizatu egiten da.
- Hartualdi zenitalek guztiz ezabatzen dute, baina oso eraginkorrak dira objektuen kokapena ikusteko.
- Kontrapikatuek, aldiz, areagotu egiten dute perspektiba
- Hainbat foku luzera (optika) erabiliz, perspektiba handitu dezakegu.
- Angelu handiek planoak aldendu egiten dituzte, eta lehen planoaren eta atzealdearen artean distantzia handia dagoen sentsazioa ematen dute.

15. ATZEALDEA (argazkiaren fondoa)

- Atzealdea zaindu beharra, intenzionalitate bat eman dezake fondoak.
- Askotan, argazkiaren atzealde edo hondoa motiboa bezain garrantzitsua da. Atzealde desegoki batek eraldatu dezake motiboa.
- Hartualdia egiteko unean, askotan, ez diogu atzealdeari erreparatzen. Badakigunez zer den guk irudikatu nahi duguna, ez gara konturatzen atzealdean eta hori akats larri bat izan daiteke.
- Atzealdea konposizioaren etsaia izan daiteke. Beste batzuetan aldiz, atzealdea lagungarria izan daiteke.
- Atzealdeak ez oztopatzeko bi aukera:
 1. Eremu sakonera gutxitu dezakegu atzeko eremua erabat borroso jartzeko, eta horrela ikusleari gidatu dakiokegu: hau da benetan zuk ikustea nahi dudana.

2. Gu mugitu, zenbaitetan urrats batzuk mugitzea (ikuspuntua) edota hartualdi-angelua aldatzea nahikoa da nahi ez dugun atzealdea ez hartzeko.

Baina, informazio-argazkien kasuan, askotan, gertakaria garatzen den moduak erabakiko du atzealdea. Anbulantzira sartzen ari direnean zauritu bat: ez dugu denborarik diafragmarekin jolasteko, beraz hor lehenetsi beharko litzatekeena informazioa izango litzateke, atzealdeak berdingo luke. Bota argazki asko, hustu kamera eta egongo da ziur baten bat besteren bat baino egokiagoa.

- Motiboei markoa jartzea baliabide egokia izan daiteke interesgunea nabarmentzeko.
- Markoa sortzeko teknika honek gai nagusira zuzentzen laguntzen du irakurlea.
- Irudia biziagotu dezake markoak.
- Kamera mugitzea marko on bat aurkitu arte. alibide naturalek egindako markoa izan liteke askotan. Adb leiho ala ate batena, zuhaitz-adarrak, arku bat...
- Marko ilunak begirada gidatzen laguntzen du.
- Markoak disimulatzeko zer egin:
 1. Markoa desenfokatuta utzi dezakegu: eremu sakonera oso laburra erabili du diafragmarekin, guk erabakitzen degu zer enfokatu eta zer ez (ibarretxerena gogoratu, ibarretxe enfokatu zegoen eta aurreko ikurrina handia ez, gogoratu anoetako barroteena, barroteak enfokatuak zeuden eta estadioa ez).



2. Testuingurua zehazteko balio dezake markoak.

- Arkitekturak aukera zabalak eskaintzen ditu.

16. PERSPEKTIBA


- Perspektiba, sakontasunaren bila. Perspektiba ulertu behar dugun modua: argazkiak duen sakontasuna.
- Lerroak bi dimentsiotako planoan mugitu daitezke, edota sakontasun sentsazioa eman dezakete.



- Perspektibaren adibide klasikoa: errepide zuzen bat, eta badirudi infinitora doala.



- Kontrargiak oso lauk dira. 2D sentsazioa ematen du.
- Irudi fotografikoari sakontasuna emateko perspektiba erabiliko dugu (FALTA).
- Eszenaren lehen planoaren eta hondoaren artean distantzia sentsazio psikologikoa sortu behar da.
- Perspektiba duten irudiak interesgarriagoak eta ulertzen errazagoak dira.
- Perspektiba (eszenaren sakontasuna) lantzeko teknikak:
 - Perspektiba lineala
 - Teorian infinituraino luzatzen diren bi lerro paralelo edo gehiago bateratu egiten dira argazkian, ihes-puntua deitzen zaion puntuan.
 - Puntu egokia izan daiteke hori herenaren arauko lau puntuetako bat kokatzeko.



- Txikiagotuz doan perspektiba
 - Tamaina ezaguneko objektuak gero eta txikiagoak ikusten dira distantzia handitu ahala.
 - Efektu horrek perspektiba eranstean die argazkiei.

- Fokatze hautatua
 - Perspektiba areagotu daiteke fokatze hautatua erabiliz
 - Interesatzen ez zaiguna gaizki fokatuta utziko dugu..
 - Atzeko planoaren desenfokatzeari, basikamente
 - Irudi guztiz fokatuak perspektiba gutxiago du, itxuraz, plano desenfokatuak dituen batek baino.
 - Giza burmuinak interpretatzen du txarto fokatutako gauzak hainbat distantzian daudela.

- Aire-argi perspektiba
 - Eguratseko efektu optiko baten eraginez, urrun dagoen guztia gandutsu (espeso) ikusten da, urdinago eta argiago, lausoago, alegia. Perspektiba horrek, irudia areagotu egiten du.
 - Aire-argi perspektibak, batez ere, distantziak eragiten dituen argitasun kontrasteak eta irudi-garbitasun aldeak erabiltzen ditu sakontasuna lortzeko.
 - Efektu optikoa airen zintzilik dauden ur, ke edo hauts partikulen eraginez gertatzen da.
 - Zeru hodeitsuek eta hezetasunak indartu egiten dituzte tonu grisak eta urdinak.

- Koloreak eta tonuak
 - Koloreen aukeraketak eragina izan dezake irudiaren itxurazko sakontasunean.
 - Kolore beroek (argiek) hurbildu egiten dute eta hotzek (ilunek), urrundu.

3. GAIA: IKUS-KODEAK ETA ARGAZKI INFORMAZIOA

1. EZBERDINTASUNA: DENOTAZIOA ETA KONNOTAZIOA

- DENOTAZIOA

- Ikusten dena da, zer ikusten dugu? Objektibotasun utopiko horretatik gertuen egongo litzatekeena. Argazkiaren deskribapena izango litzake.
- 5 Wk:
 - Zer?
 - Nor?
 - Noiz? Argazkietan noiz irudikatzea oso zaila da, erlojuren bat edo beharko genuke. Egunkarietan “normalean” bezperako argazkiak izaten dira
 - Non?
 - Zergatik?

- KONNOTAZIOA


- Iradokitzen dena. Esanahi dimentsio erretorikoa. Daukan esanahia.
- Guri argazki honek bidaltzen digun mezua edo esanahia

2. KONNOTAZIOA

- **ERREFERENTEA:** Irudikatua dena. Argazkian ateratzen den hori
- **IRUDIA:** irudikatzea
 - Denotazioa (ikusten dena; objektiboa)
 - Konnotazioa (iradokizunak)
- **ESANAHIEZ OSATURIKO MEZUA**
 - Esanahi-sortze prozesuan hainbat elementuren bitartekaritza.

- **IRAKURLEA**

- Irakurlearen gaitasun ikonikoa
- Kultura
- Gaitasun fisikoa
- Gaitasun psikikoak
- **KODEAK**: esanahiak sortzen laguntzen dituzten arau multzoak. Oso baliagarriak dira argazkiak irakurtzeko garaian. Argazki bati esan nahi bat emateko baliabideak dira, eta hortaz baliabide horiek (kode horiek) aurretik ezagutzen baditugu, argazkien irakurketa errazago burutuko dugu.



- Irakurleak konnotazio ideologikoz jositako mezu subliminala jasotzen du, neurri handi batean, oharkabean:
 - Gaitasun ikonikoa
 - Kultura
 - Gaitasun fisiko
 - Gaitasun psikikoak
 - **KODEAK**: Esanahik sortzen dituzten arau multzoak.
- “Fotoperiodismo formas y codigos” liburua (Manuel Alonso Erausquin)

- **Irudiaren polisemia**
 - Mendebaldeko kultura
 - Irakurle bakoitzaren interpretazioa
 - Testu idatziak

3. KODEAK (7 DIRA)

I. ESPAZIO KODEA

- Espazio kodea aztertzeko elementu baliagarriak:
 - Enkoadraketa: planoak
 - Argazkilariaren ikuspuntua
 - Hartualdi-angeluak
 - Sartutako eta baztertutako espazioa

- Espazio kodea argazkia egiteko hautatu den espazio zatitik abiatzen da. Erretratuko espazioari, bai argazkigintzan baita zinean ere, eremu esaten zaio.

- Kameraren optikak hartzen duen eremu horretan zabaltasun bereizketak egiten direnean planoak sortzen dira.

- **Enkoadraketa:** eremu-zabaltasuna.

- Eremu zabaltasunak (ez, zabalera) sortzen duen hurbiltasun maila erabil daiteke:
 - Informazioa emateko
 - Adierazpen intentzios (asmo estetiko)

- **Planoak** (giza erreferentzia eta eremu-zabaltasuna)

↑ PLANOAK

- **Plano orokorrek** pertsonaiak dekoratuaren barruan "galduarazten" dituzte, protagonismoa kentzen diete gizabanakoei eta kolektiboari ematen diote.
- Erretratuko gizabanako bakarturik, txikiturik edo dekoratuan sarturik agertzen da.
 - **Plano orokor zabalak** baliteke urruntasuna eragitea, ikuslea gertaeran ez inplikatzeari, "kanpoko" posizioan geratzea gozotasun moduko batean.
 - Gertuko plano orokorretan gauzak nola gertatzen diren ikusten da. Keinak nahiko argi agertzen dira.
 - Badira **plano amerikarrak edo hiru laurdenekoak**, protagonisten egintzak eta jarrerak erretratatzekeo baliagarri direnak.
 - **Plano ertainek** keinu kodeko aspektu asko nabarmentzen dituzte, eta pertsonaien identifikazioa errazten dute
 - Protagonisten aurkezpena, prentsan, **lehen planoen** bitartez egiten da, batez ere artxiboko irudiak erabiltzen direnean eta ez, gertaeretatik hartutako pasarteak.
 - **Lehen planoak** irudi indartsua da, gertaera batetik atera denean. Pertsonaien barnean sartzeko ahalegina da. Protagonisten aldartea azaleratzeko balio du.
 - Nonahi erabili nahi denean, "karnet-argazki" deituetan jotzen da, hainbat erakundek argazki "ofizial" gisa zabaltzen baitituzte halakoak.
 - Lehen planoak zatikatzeak edo mozteak ezegonkortasuna, harridura, egonezina, larritasuna edo beldurra eragin dezake.
 - Asaldagarria da elementu aktibo osatugabeak koadroan sartzeari.
 - **Xehetasun planoak** erretratuaren pentsamenduan murgiltzen da.
 - Hartualdiaren **zabaltasuna** (ez, zabalera) informazio premiek baldintzatu dute, baina, aldi berean, zabaltasun horrek indartu ditzake agertokia eta egoera.

↑ HARTUALDI ANGELUAK (esanahia)

○ **EZAUGARRI OROKORRAK**

- Goitik fotografiatu den elementuak txikiagotze eta ezkortasun eragina jasotzen du. Pertsonaien kasuan, haien balioarekin eta gogo-egoerarekin lotzen dela.
- Baliagarriak gerta daitezke gertatutakoaren edota ondorioen ikuspegi hobea izateko, eta pasarteko protagonisten banaketa hobeto ikusteko.
- Kasu batzuetan, babesgabetasun sentsazioa transmititzeraino irits daiteke eta ikuslea, zorabio moduko baten mende, larriturik eta hunkiturik senti daiteke.
- Hartualdi zenitalak gertatutakoaren ikuspegi desberdina eskaintzen digu.
- Plano zenitalek argazkiari sakontasuna kentzen diote, irudiak lautu egiten dira.
- Ikuspuntu bitxiak eta desberdinak eskaintzen dira, horrela ikuslearen arreta erakartzeko..
- Aleksander Rodchenko (1902-1956) argazkilari sobietarra izan zen aurrenekoa honelako ikuspuntu bereziak eskaintzen.
- Aldaketa: Goitik beherako hartualdiarekin informazio zehatzagoa eskain daiteke (perspektiba).
- Behetik gorako hartualdiak. Erretratutako pertsonaiak gu baino gorago geratzen dira. (falta)
- Norbere ideologiako politikariak goraiatu nahian, askotan erabiltzen da behetik gorako hartualdia.
- Baina beste kodetze elementu batzuen eraginez, pertsonaiari ezaugarri negatiboa ere eman liezaioke.
- Gizakiak handiusteko edo desatsegin gisa aurkezteko ere erabil daiteke.
- Gehienetan, desabantaila egoeran uzten dute ikuslea argazkiko gaiarekiko. Irakurlea zapalduta ere senti daiteke (argazki bat tipo batena betikan azaltzen dala, zapata oso handia irakurlea zapaltzen bezela)
- Angelu handiak areagotu egiten du nagusitasuna.
- Elizaren irudia kaltetzeko erabil daitezke hartualdi hauek (adibidearekin zijoan esaldi hau). Poliziaren nagusitasuna irudikatzeko baita ere (beste adibide bat)
- Hainbat kode ager daitezke hartualdi-angeluarekin batera.

○ HARTUALDI ZEIHARRA EDO ABERRANTEA

- Ikuspegi normala ez bada hartualdiaren angeluagatik behartzen, baizik eta zerumugaren lerroarekiko kamera biratu delako, ikuspegi zehar desitxuratua lortuko dugu.
- Egoeraren tentsioa indartzen dute.
- Hartualdi hauek ez dira oso ohikoak.
- Hainbat kode metatzen bada egonezina oraindik areagotu egiten da.
- Egunkarietan badaude sormenerako egokiak diren atalak. Hauek nun erabiltzen dira normalean? Askok funtzio estetikoak dute. Erabaki guztiak dira politikoak, kultura sailean zer sartu eta zer ez erabakitzea erabaki politikoa da, nahi edo ez hala da. Egia da POLITIKA sailean irudi hauek erabiltzen badira, kritikak askoz gogorragoak izango direla ziur, hortaz kultura sailean sartzen dira halako irudiak, kulturak bai eman dezakela halakoak egiteko aukera handiagoa.

○ SARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HARTUALDIAK

- Sartutako espazioaren eta baztertutakoaren arteko aukerak informazio aldetik izan dezakeen garrantzia aztertuko dugu.
- Hemen testuingurua baztertuz helburu adierazkorra bilatzen da.
- Aukeratu den espazioaren orde, baztertu den espazioa erakustek ikuspegia funtsean aldatuko luke?
- Espazioa baztertzeak erabilpen politikoa izan dezake.
- Baztertutako espazioak eragina izan dezake informazioan eta, ondorioz, islatzen den gertakariaren esanahia alda dezake.
- Batzuetan **-.- falta**
- Albiste baten inguruan egindako analisi konparatiboa.
- Beste analisi konparatibo bat: "Suminduen" manifestazioak Europako hirietan
- Sartutako espazioak helburu estetikoak edota informatiboak eduki ditzake
- Pertsonaiaren inguruko espazioa zabaldu ahala, bere bakardadea areagotzen laguntzen du.
- Bakardadea indartu eta pertsonaia txikitu egiten dugu.
- (denbora guztian esplikazio bakoitzak adibide bat zuen)

- Pertsonaiaren inguruko espazioa zabalduz gero, bere bakardadea areagotzen dugu.
 - Sartutako espazioa testuingurua irudikatzeko erabiltzen da. (kartzelako irudiaren adibidea, apaiza eta presoak hitz egiten, ondoan leihoa barroteekin, estufa eta zeldako ohea)
- Herenaren arauarekin logikoa da espazioa erabiltzea.
- Hartuadi-angelua eta argazkilaria ikuspuntua bereizi behar ditugu. Irudi honetan bi kontzeptuak azaltzen zaizkigu.



- Ikuspuntuak, esanahi ideologikoa eduki dezake (nahita eragindako edo nahi gabe sortutakoa)
- Ez da gauza bera manifestazio bat aurretik, atzetik edo aldamenetik argazkia ateratzea.
- Manifestazio bera izan daiteke baina bi ikuspuntu ezberdinetatik. Beraz, argazkilaria nun jartzean garrantzia dauka. Ze perspektiba batetik ematen du kiston jendetza dagoela, baina aldamenetik aterata bi katu.
- Espazioa murriztuz, hirugarren aukera eukiko genuke.
- Argazkilaria kokapen fisikoak bere kokapen ideologikoa iradoki dezake. Alde batetik, argazkilaria kokapen ideologikoa adierazi dezake baino beste batetik argazkilaria segurtasuna ere (ea ze argazkilaria den gai poliziaren aurrean jarri eta argazki bat ateratzeko).
- Kasu bakoitzean, batzuen ondoan eta besteen aurrez aurre gaude, eta batzuk edo besteak dira borrokako jarreraren guregana datozenak.

- Batzuetan aldamenetik lor dezakegu ikuspuntu inpartzialena. Baina ez beti.
- Mezu bat transmititzen duen subjektu edo objektu baten albotik argazia ateraz gero, enfokea berari emanda, askoz errazagoa da irakurleari edo ikusleari mezua iristea.
- Irakurtzeko markoa zehazten dugu.
- Argazki honetan nabaria da emakumea atzealdearekin lotu nahi izan duela.



Defensa camufla 11.000 millones de euros de gasto militar en partidas ocultas

- Errealitatea iruzkindu dezakegu (paper mogolloia azaltzen irudian, har zitekeen beste angelu bat: emakumearen bulegoa beste ikuspuntu batetik irudikatu zitekeen baina ez lirateke paper guzti horiek agertuko).
- Sormena baliabide garrantzitsua da konnotazioak sortzeko. Adibidez, argazkiaren atzekaldea pertsona talde bat daonen argazki batzuk lurrean uzten eta aurrean, kamararen pare parean, agente baten hankak ikusten dianen. Horrek, poliziaren presentzia dagoela ere adierazten digu.
- Batzuetan ezohiko ikuspegiak kolokan jar dezakete egunkariaren seriotasuna, emakumearen irudiari erabilera sexista emanez.
- Alderaketa:
 - Ikuspuntuaren erabilera ideologikoa: manifestarien kontra.
 - Manifestarien alde.

II. KEINU KODEA

- Mimikaz edo aurpegi/gorputz adierazpenez bideratutako hitzezkoak ez diren komunikazio guztiak, jakinaren gainekoak ala oharkabekoak izan.
- Jakinaren gainekoak: apropos keinu jakin bat - behatzarekin goruntza
- Oharkabekoak: Momentuan hartutako argazkiak. Pertsona ez da konturatzen, ez da apropos egiten duen keinua. Argazkilariak hartzen dituen momentuko argazkiak dira.
- Keinua intentziosko sinboloa izan daiteke, hitzezko adierazpena laguntzera eta indartzera datorrena.
- Esanguratsuak dira ekitaldi eta bilkura batzuetako “une erabakigarrien” aukerak, bitxikeria soilak direnak, protagonisten edota horien zeregin edo portaerei buruzko balorazioak egiteko erabiltzen badira.
- Askotan, halabehar hutsez jasotako keinuak interpretazioa edo iritzia emateko erabiltzen dira.
- Argazkilariak gertaeren sekuentziara jotzen du eta fotograma bakarra aukeratzean gauzen ikuspegia izozten du.
- Horrela, gertaeren aspektu bat besteen gainetik nabarmentzen du, era superlatiboan askotan, eta batzuetan, proportziorik eta neurririk gabe.
- Mugimendua etenda geratzen denez, nahita edo nahi gabe egindako keinuak aukeratzen dira, eta berorien bitartez informazioa iruzkintzen da.
- Gertaeren interpretazio prozesu horretan argazkilariak saia daitezke irudia hartu zenean benetako testuinguruan ez zeuden beste jarrera batzuekin lotzen argazkiko protagonista.
- Informatzaile grafikoak askotan ahalegintzen dira keinu anbiguoak, polisemikoak, absurduak erretratatzeko.
- Keinu arraroak edo bitxiak bilatzen dira behin baino gehiagotan.
- Batzuetan fotografiatuak erredikuluan edo egoera negatiboan uztea da jomuga.
- Esku eta besoen mugimenduak ez daude aurpegikoak bezain estandarizatuak, eta kulturaren alorreko berezitasunen menderago daude.
- Mendebaldeko edozeinek ongi ulertuko du adibidez norbaitek erdiko behatza ateratzen badu argazkiren batean. Beste leku bateko pertsona batek ez.
- Espainiako presidente ohiak ere keinu bera erabili zuen bere kontra agertu ziren ikasleak iraintzeko. (adb: 2010ean Aznar txistuka hartu zuten Oviedoko unibertsitatean, eta honek erdiko behatza atera zien: portada izan zen).....

- Oso gutxi dira mundu guztian esanahia bera eta bakarra duten keinuak (deitze mugimendua, logurea edo lo egitea adierazten duena...) zalantzarik edo polisemiarik sortu gabe.
- Mendebaldeko kulturaren keinuak.
- Gorputz jarrerak batzartuta dauden pertsonen arteko erreakzioak islatzen dituzte, sortzen diren eroso jartze, erantzun, paralelismo eta kontraesanen bitartez.
- Gorputz adierazpen esanguratsuak.
- Aurkakotasun adierazgarriak.
- Keinuen ongi islatzen dute bi hauen haserrea.
- Batzuetan, elkarren hurbilegi egon behar dutenean.
- Bat-bateko keinuak protagonisten aldartearekin lotuta daude.
- Pertsona bat apur bat aurrerantz makurtzen bada, baina lasai eta bizkarra zertxobait konkorturik daudela, seguru aski, begiko zaio aurrean daudena.
- Hitzez ezin adieraz daitezkeen zirrara irrazionalak komunikatzen dira keinuen bidez. Barne esperientziak adierazten dituzte adb negarra.
- Islatutako pasarteekin zuzeneko zerikusirik ez duten informazioak ilustratzeko keinu esanguratsuko argazkiak erabiltzea ere eguneroko kontua da egunkarietako orrialdeetan.
- Prentsa arinaren baliabideak...
- Eguneroko prentsan ikusten ditugu kazetarien aurrea agertzen diren pertsonaia berberei buruz hedabide batzuek eta besteek ematen dituzten ikuspegiak adibideak.
- Ondoren, ikusiko dugu Estatu Batuetako egunkari batzuek nola jaso zuten Obama, alderdi demokratikoa hautagai gisa aurkeztu zuen egunean: Lehengokoan bere andrearekin besarkatuta agertzen da irrifar batekin ahoan. Bestean bakarrik dago plano orokor batean jendeari kaso egiten. Bakartasuna eta urruntasuna adierazi nahi izan zuen argazkilariak. Presidente bezala, hautagai aukeratu zuteneko argazkia da.

III. ESZENOGRAFIA KODEA

- Dekoratuak, *atreztoa*, jantziak eta makilajea xehetasun osoz diseinatzen eta zaintzen dira fikzioan.
- Publizitatean gure helburua produktu hori geroz eta jende gehienera iristea da. Zertarako? Produktu hori saltzeko. Hori dela eta, bertan azaltzen diren irudiak ondo zaindu behar ditugu. Batik bat, garestia delako telebistan publizitatea jartzea, segundo bakoitza garestia da.

- Zinema bada “arte zuzendaria”: eszenografia faktore guztiak harmonizatzen eta konbinatzeko.
- Kazetaritza fikzioarekin alderatzerik ez badago ere, eszenografia faktoreek komunikaziorako duten garrantzia azpimarratu behar da.
- Aipa ditzagun hemen faktore horiek kazetaritza argazkigintzan dituzten oinarriko eginkizunak:
 - Gertaeraren eta gertaera horretako protagonisten garrantzia zehazten du eszenografiak. Protagonista deskribatzeko edo: elegantzia,...
 - Ingurunearen eragina dela eta **FALTA**
 - Pertsonaien irudia hanpatzeko / handitzeko.



Obama culmina el viaje de Lincoln
El sucesor de Bush se prepara para jurar mañana en una histórica investidura. — El nuevo presidente estadounidense llama a la unidad antes de asumir el mando del país... 26 a 29

EDUARDO AGUIRRE ENBAJADOR DE ELLIUI
«Lo que molestó más fue la retirada de España de Irak» ... 28

(Pertsona goraipatzeko plano kontrapikatua egitea erabaki du argazkilariak)

- Azterketan agertu ezkerre: eszenografia kodea + hartualdi angelua biak azaldu



Ez da kasualitate hutsa Macronen mahaia horrela azaltzea, txukuna, garbia, handitasuna ematen du. Urrez inguratuta, bi banderak atzean... handitasuna, garrantzia.

- Pertsonaien edo hierarkien adierazle
- Penelope Cruzen argazki batean esaterako, pila bat argazkilari badaude atzealdean, protagonistaren ospea adierazten digu.
- Eszenografian agertzen diren elementuak esanguratsuak dira irudiko pertsonaia agintaria dela eta nongoa den adierazteko.




- Pertsonaiaren lanbideari buruzko informazioa emateaz gain, bere estatusa finkatzeko ere erabil daiteke eszenografia.

- Kontrakoa ere lor dezakegu: gustokoa ez dugun politikoaren irudiari kalte egin diezaiokegu.
- Chavezen aldeko komunikabideen arabera **(FALTA)** (jende asko kontra)
- Askotan elementu eszenografikoak **errealitatea iruzkintzeko** erabiltzen da. Fondoak zerbait gehiago esaten duenean, edota nahita
- “Entendimento” hitza “miento” bihurtzen da eremu-zabalera murriztuz. Deia-k argitaratutako argazki bat da, portadan.



- Gobernu berria eratzeko elkarrizketak diskrezioz egin direla adierazteko.. edo argazkia ateratzeko izan den (FALTA)
- Burdin hesia elementu **denotatiboa** izango litzateke, eta bere **konnotazioak** argazkia “lapurtu” egin dela adieraziko luke.
- Testuaren edukia edo bere indarra areagotzen lagundu dezake irudi baten eszenografiak



- Jolasteko bakarrik bada ere
- Testuingurua zehazteko ere erabil daitezke elementu eszenografikoak: egoeraren inguruko testuingurua emateko



- Zer komentatu beharko genuke hemen? hartualdi Angelua, kode eszenografikoa eta pikatua da.
- Egoeraren larritasuna islatzeko: paper pila bat mahai baten gainean, zenbat lan, zenbat atzerapen... larritasuna
- Atzekaldeak eskaintzen duen baliabide sinbolikoarekin jokatzen du argazkilariak kasu honetan
- **Kontrastea** adierazteko: bikotearen kartela eta burkekin doazen emakumeak kaletik harrapatu dituzten unea.
- **Joku sinbolikoak** sortzeko. Kasu honetan, pertsonaren garrantzia eta handitasuna erakutsi nahi da, adibidez, motorista baten lehen planoan

eta atzealdean, desenfokatuta agertzen diren hegal batzuen marrazkia dago. Lorenzo

- Gertaeraren kokapen geografikoa ezagutzeko laguntza ere eskaintzen du eszenografiak: zezenketen aurkakoak Guggenheim-en aurrean, edo Eiffel dorrearen inguruan.
- **Lekua** finkatzeko balio du. Gertaeren lekua adierazteko eta joku sinbolikoa sortzeko



- Gertaeraren denbora-kokapena adierazteko: hauteskunde garaiaren inguruan daudela dakigu



- Irudikatzen den lekuaren eta argazkia hartu zen uneko **klimatek baldintzak erakusteko** ere erabil daiteke.
 - Ez dago zalantzarik, eszenografiak neguan kokatzen gaitu.
- Protagonistei buruzko hautematea (guk protagonistarekiko dugun pertzepzioa) indartzea edo ahultzea

- Egiaztatuta dago atzealdea mota batekoa edo bestekoa izan, eragin desberdinak sortzen direla ikuslearengan: argitasuna, zintzotasuna, sakontasuna, konfiantza..
- Telebista guztiek dakite nolako eragina duen albistegietako atzealdeak.
 - Adibidea: Neska bat erretzen: Testuinguru honek gazte erretzailearen irudia kaltetzen du. Atzekaldean basura kontainer bat dagoelako, basura guztia gainezka dagoela, lurretik botata.
- Pertsonaia kalifika dezakegu une horretan duen janzkerarengatik edota dekorazioko elementu batekiko erlazioagatik.
 - Mariano Raxoy bixera random bat jazten
- Lehen planoko elementu eszenografikoaren eragina nabarmena da kasu honetan .
 - Aznar ardo botella bat eskuan duela, bere irudia kaltetzen du.
- Agertoki **(FALTA)**
- Irudi hauek egonezina sortzen dute irakurlearengan
 - Pertsona bat kobazulo bateko leku oso estu batean
- Alderantziz, espazio ireki edo agertoki zabaletan jazotako gertaerekin lotzen dira askatasun, lasaialdi eta baikortasun sentimenduak.
 - beleruan irudia
- Gertaerak arrandiaz aurkeztuko zaizkigu, eszenografia hutsezko handikeriaz edo hanpaduraz inguratu direlako.
- Pertsonaien irudia hanpatu dezakegu **(FALTA)**

IV. ARGİ KODEA

- Argia argazkiaren oinarritzko elementua da. argirik gabe ez dago argazkirik.
- Argiaren lehen funtzioa irudia sortzerakoan sentsoreak hartzen dituen elementuen inidibidualizazioa eta kontraesana ahalbidetzea da.
- Argiak ahalbidetzen digu irudian erliebea, sakontasuna eta testura atzematen; baita objektuen arteko distantzia ezagutzen ere.
- Eszenan agertzen diren argien banaketak irudi hori hartzeko dugun modua baldintza dezake ondoren ikusiko ditugun baliabideen bidez:

- Arreta erakarriz eta ezaugarri berezia edo partikularrak nabarmenduz (fokua hizlarira zuzentzia)
- Gertaerak agerituta, forma, testura eta gainazal desberdinak erakutsita...
- Gertaerak ezkutatuta, objektu bat edota plano bat ezagutzeko zailtasunak jarrita. Ideia bat transmititzea eta sentsazioak sortzea bilatzen da.




- Argiaren norabidea, intentsitatea eta banaketa kontrolatuta atmosfera zehatz bat (sutea, ilunabarra...) gogorarazi dezakegu: sutearen adibidea.
- Itzalak erlazionatuta (indarkeria matxista kasuetan, bullying kasuetan...)
 - Pertsona ez identifikatzeko lege bat atera zen duela bi urte, horregatik ilustrazioak jartzeko joera hartu da, itzalen bidez.
 - Errekurtso argazkiak deitzen zaie, behin eta berriz erabiltzeko balio du argazki berak
 -
- Kontraargiek siluetak sortzen dituzte eta irudia lau bilakatzen dute. Horrek irudiaren inguruko informazioa galtzea eragiten du. (Ejerzitoan kasu iguala da, biek ezaugarri igualak)



- Goitik behera sortzen diren itzal handiek tentsioa areagotzen dute (**FALTA**)
- Itzal handiek tentsioa sortzen dute
- Argi eta itzalen kontraste handiak asko erabili izan ziren kristau giroko margolanetan
- Gure ikus-entzunezko kulturaren kontraste horiek duten komunikazio gaitasuna oso lotuta dago zinema errusiarrean eta alemanean baliabide horien erabilpenarekin.

- Horregatik gaur egun guk irudi argiak “onarekin” erlazionatzen dugu, eta ilunak beldurrarekin, gaiztotasunarekin...



- Argiaren eta itzalaren arteko kontrasteak gehienetan onaren eta gaizkiaren arteko borroka irudikatu nahi izan zuen. Nosferatu (1922) expresionismo alemanaren adibidea.
- Argazki kazetaritzan eremu ilun eta gandutsuek (borrosoa, ikusgarritasun txarra) itxitasuna, zapalkuntza, porrota eta ezkortasuna transmititzen dute.
- Eremu argiek eta ondo argizatutakoek argitasuna, garbitasuna, itzaropena, arrakasta eta baikortasuna transmititzen dute.
- Ondo argiztatu gabe agertzen diren pertsonak gogorrakoak eta antipatikoak dirudite; ez dute konfiantza handirik transmititzen
- Argia **elementu eszenografiko** bihur daiteke.
- **Flash-aren erabilerak** argazkiari grisen gama murrizten dio, erre eta gogortu egiten du.
 - Flash-a erabiltzean nahi ez ditugun itzalak ager daitezke eszenari ilundura emanez.
 - Benetan dauden argi mailen arteko erlazioak alda ditzake. Gau efektua sortzen du, argi asko botatzen degunez lehen planoko pertsonak asko argitzen ditu baina atzealde guztia oso ilun uzten du, gau efektu hori sortzen du.
 - Begi-gorri efektua sortzen du.

AZTERKETARI BEGIRA, ZER ULERTU BEHAR DUGU?

- Argia erabili daiteke, espazioa argi, sentsazio sentimendu onak, leku ilunak.
- Argiak, garbiak diren irudiak bibrazio onak transmititzen dituztela
- Ilun, edo itzalez betetakoek sentsazio negatiboak ematen dizkigula.
- Egia da argazki oso oso oso zuriek ere hoztasuna transmititu dezaketela, eta pixka bat ilunduak daudenak gertutasun edo intimitate puntu hori ematen duela.
- Adibidea, Jordi Evole Rajoyrekin bulegoa argizatuta guztiz. Puigdemontekin, dena ilunduta dagoen gela batean.
- Eszenografia aldetik, lehenengo argazkian taberna batean daude eta postura erlaxatuegia daukate, lagun artean daudela ematen du. Beheko argazkian berriz, postura serioagoa dute eta atzekaldeak bentanal handi argitsu bat daukate.

V. KODE SINBOLIKOA


- Argazkiak berehalako informazio gaitasuna galtzen duenean eta errealitate baten sinbolo unibertsal bilakatzen denean sortzen da argazki sinbolikoa. Kasu honetan atzeko mezu edo ideia iradoki nahi du, ez argazkiko pertsonaia. Adibidez, Che Guevararen argazkiak iraultza eta borroka irudikatzen du.



Ez da argazki informatibo hutsa, mezu edo ideia bat du atzea, sinbolo unibertsal bat da. Hasieran irudi bat zen, baina gaur egun ikono edo sinbolo bihurtu da.

- Trumpek aldaketa klimatikoa ez dagoela dio, ez dela arazo gaur egungo munduan. Horregatik urtzen ari den Trump bat marraztu dute.

DER SPIEGEL Alemaniako astekari nagiena da eta bertan azaltzen den titularra honako hau da: 'Munduaren amaiera (gaur ezagutzen duguna)'.



- Informazioari erasten dion zentzua konnotazio subjektiboz zamatua egon ohi da.



- Sinboloa erabiltzen duenak interpretazio eta balorazio jakin bat eskaintzen du: irakurlearengan sinbolo hori txertatzea biltzen du, egoera edo gertakari konplexu baten irudi orokor gisa.



Gerrilari baten exekuzioa. Eddie Adams (1968)

- Pertsonak, bere burua ez ezik, **kolektibo osoa** irudikatzen du eta, irudikapenaren abstrakzio maila zenbat eta handiagoa, orduan eta gehiago.
- Esanahia sinbolikoen zeinuak erreferente zuzeneko eta garrantzizkoenarekiko loturarik askatu eta abstrakzio maila altuko beste errealitate batekiko esanahia erlazio eratu behar du.

Bandera bat lur batean sartzeko ikusten dugun edozein argazkik, garaipena edo konkista bat iradokitzen digu. Errealitatearen eta sinboloaren arteko erlazioa da hori: errealitatea da, soldaduak bandera (makil bat) lur batean sartzeko, sinboloa: konkista.



Jose Rosenthalek ateratako Iwo Jimaren banderaren igoeraren argazkia (1945), sinbolo eta propaganda gisa erabili zuten.

- Argazki honekin II Mundu Gerran Pazifikoan ateratako AEBtako tropen garaipena irudikatu nahi zuten:

Robert Capa (Berlin, 1945) gerra amaierako egoera onaren irudia sinbolizatu nahi zuen. Egoera onaren irudia eman nahi zuten, naziak salbatzaileak balira moduan.



- Trummerfrauen (Berlin, 1945). Nola emakumeek Berlin garbitzen duten katean, talde lanean Berlin berreraikiko dutela, lan zikina nola ez emakumeek.



- Sinboloak ahalmen handia du abstrakzioaren bidez konnotazioak transmititzeko.

- Tejeroren Estatu golpe saiakera 1981eko otsailaren 23an. Argazkia: Perez Barriopedroak atara zuen Demokraziaren aurkako altsamendua erakutsi nahian.



- Txinan polizia gehiegikeriaren aurkako borroka pazifikoaren sinboloa.

Charloe Cole-k (1989) ateratako argazkia



- Irudi bat nola bihurtzen da sinboliko?
 - Analogia ala errealitatearekiko antzekotasuna erakutsiz.
 - Erabilpenaren erabilpenaz, esanahi bat hartu izana. Sarritan konbentzioz sortutako irudiak.

- Esanahi sinbolikoaren prozesua ulertzeko tradizioz kontuan hartu diren bi potoloak analogia eta konbentzioak dira: Buruhezur batek ez du zertan arriskua suposatu behar, baina hori da guk eskuratzen dugun ideia.



- Irudi berdinak eduki dezake bai konbentzioz sortutako esanahia eta baita analogiaz sortutako esanahia ere.



- V keinuak (garaipena (victoria) irudikatzen du, analogia dela esan genezake, beraz)



- Aborto eskubidearen sinboloa: eskuekin osatutako bulba. Analogiaz sortutako sinboloa.



